

DANTZA. Batbiru taldeak jendea dantzaraziko du, bestalde, bihar, Gare du Midiren aurrean

Mari Errauskine ipuinaren liluran amaituko da aurtengo Maitaldia

Lyongo Opera Nazionaleko Baletak 'Cendrillon' ikusgarria eskainiko du gaur eta bihar

Celine Mounole | MIARRITZE

Gau honetan eta bihar, Lyongo Opera Nazionalak, Cendrillon edo Mari Errauskine ikusgarria eskainiko du bederatzi oronetan, Miarritzeko Gare du Midi gelan. Ikusgarri horrek, bihar dio bukaera emanen Miarritzeko 12. Maitaldiari. «Mari Errauskine ikusgarria 400 bat aldiz eman dugu munduan zehar 1985az geroztik. Duela hiru urte erreperertoriotik baztertu genuen eta aurtun berriz landu dugu eta abian ezarri ikuslegoak eskatzen zuelako», adierazi zuen Yorgos Loukosek, Lyongo Opera Nazionaleko zuzendari artistikoak.

Prokofiev musikariak Mari Errauskin baletaren musika 1940an idatzi zuen eta 1945ean emana izan zen lehen aldikotz Moskuko Bolchoi antzokian. 1985ean aldiz, Maguy Marin koreografo ospetsuak, Prokofieven musika berriz harturik, koreografia berria idatzi zuen. «Koreografia oso berezia da. Izan ere, Marinek ipuina beste ingurugiro batean kokatzen du. Baleta hiru solairuko panpinatxe handi batean iragaten da eta pertsonaia guztiak, Mari Errauskine, Amaizuna, Ahizpa gaixtoak, printzea, panpinak dira. Emeki-emeki panpina guzti horiek bizi hartzen dute eta beren rola edukitzen. Asmatu mundu horrek du baleta horren fama eta arrakasta egiten», Yorgos Loukosen iritziz. Beraz, dantzari guztiak panpina itxura dute: gorputz faltsuak eta maskak daramatzate. «Balet horrek antzerkiaren itxura du, panpina etxearengatik, eta baita maskengatik ere».



GÉRARD AMSELLEM

Lyongo Opera Nazionaleko Baletaren Cendrillon ikusgarriaren une bat.

«Baina, zaila izan da koreografia horren abian ezartzea, moztarok dantzariak trabatzen zituztela eta. Jantzi bereziak soinean dituztenez, dantzariak ez dezakete edozein urrats egin. Beraz, Maguy Marinek estetika berezi eta egingarria asmatu du eta atzeman mugimendu berriak dute koreografia horren berezitasuna egiten», Loukosek erran duenez.

Baletaren musika ere berezia da. Izan ere, Jean Schwartz musikariak soinu grabaketa batzuk gehituak zaizkio Prokofieven musikari. Grabaketa horrek,

YORGOS LOUKOS

Lyongo Opera Nazionaleko zuzendaria

«Marin koreografoaren Mari Errauskinen bertsio berriari esker haurtzaroan murgilduko gara»

haur ahotsak ditu entzunarazten. Haurrak mintzo, edo irriz. «Balet horri esker gure haurtzaroan murgiltzen gara osorik, alde batetik Mari Errauskinen ipuina denok entzun daukagualako aurrean, bestetik, haurren

jarrera, sineskortasuna baina laztasuna ere atzematzen baitira panpina horien baitan», Yorgos Loukosek adierazi duenez.

Lyongo Opera Nazionaleko Baletak, berriz ere munduko itzulua egingen du aurtun, obra hori baita Ravelen Programazioan erakutsiko dutena. Bihar, Patxi Perez eta Batbiru taldeak nahi duten guztiak dantzara gonbidatuko dituzte, Euskal Herriko eta beste herriko dantzak erakutsiz, arratsaldeko zazpi oronetan. Gare du Midi gelaren aurrean izanen da emaldia.

ANTZERKIA

'La belle Helene' opereta emango dute asteburu honetan, Barakaldon

Asier Iturriagaetxebarria | BILBO

Gaur, bihar eta etzi Jacques Offenbach-ek idatzitako *La belle Helene* (*Helene ederra*) opereta ikusteko aukera izango da Barakaldo Antzokian. Kataluniako 3XTR3S konpainiak taularatuko du, hau da, Tricicle eta Dagool Dagom antzerki taldeek. Operetaren zuzendaria, berriz, Josep Maria Mestres da.

Anna Argemi aktoreak —Helene da operetan— azaldu zuenez, «ikusleak barre egitea da gure asmoa. Umorea uneoro agertzen da». Era berean, Offenbachen «musika erakargarria» nabarmendu zuen. Hala ere, ipuin mitologikoetan oinarritutako drama bat da *La belle Helene*, Greziako jainkoen jolas baten ondorioz artzain batez maitemintzen den emakume ezkonduaren drama. «Gizarte burgesa kritikatzeko XIX. mendean Offenbachek, baina oraindik bizi-bizirik dago», azaldu zuen Argemik.

'Paseando a Miss Daisy' antzezlanaren hilaren 3a arte izango da ikusgai Arriaga antzokian

Natalia Salazar | BILBO

Alfred Urhyk idatzitako *Paseando a Miss Daisy* antzezlanaren estreinatu zen atzo Arriagan, eta hilaren 30a arte izango da bertan. Amerikarrak Pulitzer eta Oscar sariak jaso zituen idatzitako antzezlan horri esker. Luis Olmos zuzendariaren arabera, «elkar ezagutzen dugunean aurreiritziak eta beldurrak alde batera uzten ditugula erakusten digu lanak».

Daisy andere judutarra (Amparo Rivelles) auto istripu baten ondorioz aseguru-etxeek bezerotzat nahi ez dutela eta, bere semeak txofer beltzarana kontratatuko du. Honen aurrean, Daisyren aurreiritziak iratzarriko dira, nahiz eta harreman horri esker askoz pertsona samurragoa bilakatuko den.

IRAGARKI MERKEAK

943 300 222

NAIROBITARRA

LAU ASTE AZAROAN

TRANSARGENTINA

**Iguazu
Ushuaia**

banca 94 424 00 11



**20 LAGUN
GEHIENEZ
400.000 pta.**

33 x 33 mm

**33 x 33
MODULO
(Edizio orokorra)**

Eguna: 3.000
Astea (6 egun): 2.300
2 aste (12 egun): 2.100
Hilabetea (24 egun): 1.500

**33 x 33 mm
MODULO
(Araba-Nafarroa)**

Eguna: 2.200
Astea (6 egun): 1.900
2 aste (12 egun): 1.600
Hilabetea (24 egun): 1.200

**33 x 33 mm
MODULO
(Iparralde)**

Eguna: 84 l.
Astea (6 egun): 73 l.
2 aste (12 egun): 61 l.
Hilabetea (24 egun): 46 l.